

PRENTSA OHARRA

BILBOKO UDAL MUSIKA BANDAK JULEN RAMOS PIANO-JOTZAILEA LAGUN DUELA OSPATUKO DU SAN BALENTIN EGUNA, ZINEMA GIROKO KONTZERTU BATEZ (DOMEKA, HILAK 14, EUSKALDUNA JAUREGIA)

- **Rafael Sanz-Espert Zuzendari Titularraren batutapean, George Gershwin-en 'An American in Paris' eta 'Rhapsody in Blue' eta Leonard Bernstein-en 'West Side Story' eskainiko ditu**
- **Prestakuntza nagusiki Madrilen eta Holandan egin duen Julen Ramos musikari bilbotarra Bilboko Orkestra Sinfonikoaren ohiko kolaboratzailea da**
- **Ohiturari jarraituz, emanaldia 12:00etan hasiko da Euskalduna Jauregiko Auditorioan. Sarrerak 2 euroko prezioan daude salgai**

Bilbon, 2010eko otsailak 12.- Euskalduna Jauregian eskaintzen ari den neguko kontzertu-denboraldiaren barruan, Bilboko Udal Musika Bandak **maiteminduen eguna** ospatuko du domekan, otsailak 14, **Julen Ramos** piano-jotzaile bilbotarra protagonista duen programa baten bitartez. Ohiturari jarraituz, emanaldia **12:00etan** hasiko da, eta sarrerak **2 euroko** prezioan salduko dira.

Egun berezi honetarako, Bandako Zuzendari Titularrak, **Rafael Sanz-Espert** maisuak, zinema giroko errepertorioa aukeratu du, **George Gershwin eta Leonard Bernstein** musikagileek doinuak tartekatuz. Horien artekoak ditugu 'An American in Paris' -Vincent Minnelli zinegileak izenburu bereko filmerako erabili zuen Gershwinen partitura-, Bernsteinek 'West Side Story' filmerako egindako soinu-banda edota Woody Allenen 'Manhattan' eta beste hainbat filmetan erabili den Gershwinen 'Rhapsody in Blue', adituek Estatu Batuetako lehendabiziko obra sinfonikotzat jotzen dutena.

Azken hau Julen Ramos (Bilbao, 1977) musikari gazteak eskainiko du. Piano-jotzaile hau Bilboko Orkestra Sinfonikoaren ohiko kolaboratzailea da, eta hainbat ganbera-kontzertutako protagonista izan da Espainian eta Holandan. Prestakuntza Madrilen eta Groningen-en (Holanda) egin du nagusiki, eta hobekuntza-ikastaro desberdinak egin ditu, Joaquín Achúcarro maisuak 2007an Siena hiriko (Italia) Musika-Akademian eskaini zuena barne hartuta.

Sarrerak eskuragarri daude: Euskalduna Jauregiko leihatilan, 944 310 310 telefonoan, BBK Kutxazainetan edo interneten: online, BBKren bidez.

Bilboko Udal Musika Banda BILBAOMUSIKA Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailaren menpeko organismo autonomoaren ardurapean dago, Musika Eskola eta Txistularien Banda bezala.

Informazio gehiago:

PRENTSA-BULEGOA: L&V COMUNICACIÓN – Itziar Villamandos

Kale Nagusia, 81 – 3. solairua, 9. saila, 48011 BILBO

Tel. 94 416 08 00 -Faxa: 94 439 30 56

Eskukoa: 657 796 583

villamandos@lvcomunicacion.com